Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

EIBARKO UDALERRIKO IBAIGUNEETAN ZABOR SAKABANATUAK PILATZEN DIREN FOKUAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE FOCOS DE ACUMULACIÓN DE BASURAS DISPERSAS EN ESPACIOS FLUVIALES DEL MUNICIPIO DE EIBAR

1.- AURREKARIAK

Itsas inguruneko hondakinen kutsadura krisi global larria da, eta berehalako ekintzak eskatzen ditu. Kalkuluen arabera, 4,8 eta 12,7 milioi tona plastikok amaitzen dute itsasoan urtero. Nabarmendu behar da hondakin horien % 80 lehorrean sortzen dela, batez ere herritarren kontzientzia eskasa dela eta. Horren ondorioz, kontrolik gabeko isurketak egiten dira, eta isurkin horiek ibaiek eramaten dituzte herrestan, itsasora iritsi arte.

Ingurunearen egoeraz jabetuta, Eibarko 2025 Plan Estrategikoak, bai eta udal honek onartutako Ingurumen Ekintzako Planak eta Klima eta Energia Jasangarriko Planek ere, udalerriko ingurumen-kalitatea hobetzeko eta natura- eta ondare-baliabideak behar bezala kudeatzeko konpromisoa adierazten dute. Plan horiek, besteak beste, ekintza estrategiko hauek jasotzen dituzte: *"Udalerriko ibilguetan eta ertzetan egin beharreko jardueren plangintza eta jarraipena egitea, haiek mantentzeko eta garbitzeko*" eta "*Ego ibaiaren birnaturalizazioa eta ibilgu eta ibaiertzen ingurumen-berreskurapena sustatzea"*.

Horren harira, Udalak urteak daramatza ibai-ingurunea hobetzen, Ego ibaian eta inguruko zenbait errekatan zabor solteak pilatzen dituzten fokuak garbitzen. Jarduketa horietan, herriko gunetik igarotzen diren ibaiaren zati estali gabeko ia guztiak hartzen dira kontuan, bai eta Eibarko erreka garrantzitsuenen zati

1.- ANTECEDENTES

La contaminación por residuos en el entorno marino es una crisis global creciente que exige acciones inmediatas. Se estima que entre 4,8 y 12,7 millones de toneladas de plástico acaban en el mar todos los años. Cabe destacar que el 80% de estos desechos se origina en tierra firme, impulsado principalmente por una escasa conciencia ciudadana que deriva en vertidos incontrolados; estos son arrastrados por los ríos hasta desembocar en el mar.

Conscientes de la situación del entorno, el Plan Estratégico de Eibar 2025, así como los Planes de Acción Ambiental (PAL) y de Clima y Energía Sostenible (PACES) aprobados por este Ayuntamiento, reflejan su compromiso con la mejora de calidad ambiental del municipio y la adecuada gestión de los recursos naturales y patrimoniales existentes. Dichos planes recogen entre sus líneas de actuación estratégicas acciones como *"Realizar una planificación y seguimiento de las actuaciones a realizar en los cauces y márgenes del municipio para su mantenimiento y su limpieza*" y *"Potenciar la renaturalización del río Ego y la recuperación ambiental de cauces y riberas"*.

En este sentido, el Ayuntamiento lleva años trabajando en la mejora del entorno fluvial, limpiando focos de acumulación de basura dispersa en el río Ego y en diversas regatas adyacentes, tratándose de actuaciones que contemplan prácticamente la totalidad de los tramos descubiertos del río Ego que discurren por el tramo urbano del municipio, así como

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

batzuk ere (Iburerreka, Txonta, Aiagaerreka, Gorostaerreka eta Aasuaerreka).

Esku-hartze honen bidez, jarraipena eman nahi zaio ibai-eremuetan sakabanatutako zaborren metatze-fokuen garbiketari, eta, hala, Ego ibaiaren eta udalerriko zenbait errekaren funtzionaltasun ekologikoa hobetu. Beraz, jarduera honek ingurumen-izaerako Garapen Jasangarrirako Helburuei laguntzen die, batez ere 6. GJHari "Uraren eraligarritasuna eta haren kudeaketa jasangarria eta guztiontzako saneamendua bermatzea" (6.6 GJH), 14. GJHari "Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatzea eta erabiltzea"(GJH 14.1) eta 15. GJHari ("Lurreko ekosistemen erabilera jasangarria babestea, lehengoratzea eta sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiaraztea eta egoera iraultzea, eta dibertsitatearen galerari gelditzea (GJH 15.1).

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburu nagusia da zerbitzu bat kontratatzea sakabanatutako zaborra biltzeko Ego ibaiaren zati estaligabeetan (herrigunetik igarotzen direnak) eta Eibarko erreka-gune garrantzitsuenen (Iburerreka, Txonta, Aiagaerreka eta Asuaerreka) zati batzuetan (I. eranskina).

Hondakinak garbitzeak lagundu egingo du Ego ibaiaren eta udalerriko zenbait errekaren kontserbazio-egoera hobetzen, bai eta herritarrak sakabanatutako zaborraren arazoaz sentsibilizatzen ere.

3.- ESKU-HARTZEAREN EREMUA

Zabor bilketaren xede diren guneen zerrenda I. eranskinean jaso da.

Lehenengo laurak Ego ibaiaren estali gabeko zatiei dagozkie, eta udalerriko hirigunetik igarotzen dira:

1. TARTEA: Ego ibaia (Otaola – Torrekua)
2. TARTEA: Ego ibaia (Egogain)
3. TARTEA: Ego ibaia (Barrena – Murrategi – Azitain)

varios tramos de las regatas más importantes de Eibar (Iburerreka, Txonta, Aiagaerreka, Gorostaerreka y Asuaerreka).

A través de esta actuación se pretende dar continuidad a la limpieza de los focos de acumulación de basuras dispersas en espacios fluviales, mejorando así la funcionalidad ecológica del río Ego y varias regatas del municipio. Por lo tanto, esta actuación contribuye a los Objetivos de Desarrollo Sostenible de carácter ambiental, principalmente al ODS 6 "Garantizar la disponibilidad de agua y su gestión sostenible y el saneamiento para todos" (ODS 6.6), ODS 14 "Conservar y utilizar sosteniblemente los océanos, los mares y los recursos marinos" (ODS 14.1) y al ODS15 "Proteger, restablecer y promover el uso sostenible de los ecosistemas terrestres, gestionar los bosques de forma sostenible, luchar contra la desertificación, detener e invertir la degradación de las tierras y poner freno a la pérdida de diversidad" (ODS 15.1).

2.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto principal del presente contrato es contratar un servicio para la recogida de la basura dispersa que se encuentre presente en los tramos fluviales descubiertos del río Ego que discurren por el tramo urbano del municipio, así como varios tramos de las regatas más importantes de Eibar (Iburerreka, Txonta, Aiagaerreka y Asuaerreka) (Anexo I).

La limpieza de estos residuos contribuirá a la mejora del estado de conservación del río Ego y varias regatas del municipio, así como a sensibilizar a la ciudadanía sobre la problemática de la basura dispersa.

3.- AMBITO DE ACTUACIÓN

El listado de los tramos objeto de la recogida de basuras se recoge en el anexo I.

Los cuatro primeros, corresponden a los tramos descubiertos del río Ego que discurren por el tramo urbano del municipio:

TRAMO 1: Ego ibaia (Otaola – Torrekua)
TRAMO 2: Ego ibaia (Ego-Gain)
TRAMO 3: Ego ibaia (Barrena – Murrategi – Azitain)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

4. TARTEA: Ego ibaia (Apalategi – Maltzaga)	TRAMO 4: Ego ibaia (Apalategi – Maltzaga)
Azken bost tarteak zabor gehien pilatzen duten Ego ibaiaren ondoko errekei dagozkie:	Los cinco últimos tramos, corresponden a los tramos de regatas adyacentes al río Ego con mayor acumulación de basura dispersa:
5. TARTEA: Iburerreka (Otaola hiribidea) 6. TARTEA: Txonta erreka (Txonta kalea) 7. TARTEA: Aiagaerreka (Murrategi kalea) 8. TARTEA: Gorostaerreka (Azitain industrialdea) 9. TARTEA: Aasuaerreka (Asua erreka kalea)	TRAMO 5: Iburerreka (Otaola Hiribidea) TRAMO 6: Txonta erreka (Txonta kalea) TRAMO 7: Aiagaerreka (Murrategi kalea) TRAMO 8: Gorostaerreka (Azitain industrialdea) TRAMO 9: Asuaerreka (Asua erreka kalea)
I. eranskinean adierazitako tarte bakoitzaren luzera orientabide gisa interpretatu behar da.	La longitud de cada tramo señalado en el anexo I, debe interpretarse a título orientativo.
Zaborrak kentzeko lanak ibilguaren luzera osoan eta zortasun-eremuan egin beharko dira. Zortasun hori I. eranskinean adierazitako tarteen barruan dago. Ibilgua ohiko gehieneko ur-goraldia estaltzen duen lurrak osatzen du. Hau da, ur baxuen ibilgua eta ibaiertzak hartzen ditu. Ibaiaren ibilgua eta ibaiertzak Jabari Publiko Hidraulikoaren zati dira (titularitasun publikokoak). Zortasun-eremua ubidearen ondoan dagoen zerrenda da, bost metroko zabalerakoa (II. eranskina).	Las operaciones de retirada de basuras se deberán realizar en toda la longitud del cauce y servidumbre que queda englobado en los tramos señalados en el anexo I. El cauce lo compone el terreno que cubre la máxima crecida ordinaria. Es decir, incluye tanto el cauce de aguas bajas como las riberas. El cauce del río y las riberas son parte del Dominio Público Hidráulico (de titularidad pública). La zona de servidumbre es la franja situada colindante con el cauce, con ancho de cinco metros (Anexo II).
Herriko ibaibide guztiek antropizazio handia jasan dute altuera txikiagoan dauden zatietan, batez ere Ego ibaian, zati handi bat lurperatuta eta kanalizatuta baitago.	Todos los cursos fluviales del municipio han sufrido una gran antropización en los tramos situados a menor altitud, sobre todo el río Ego, que gran parte esta soterrado y canalizado.
Ibaiak alboetan mugarik ez duen guneetan eta landaredia dagoen lekuetan, batez ere hondakin plastikoak eta ehunak pilatzen dira; hondakin horiek ibaiak eramaten ditu herrestan, eta adarren eta landarediaren artean geratzen dira itsatsita. Hondakin horien jatorria ibaian gora dago; hondakinak adarren artean geratzen dira denbora luzez. Gune horiek garbitzea zaila izan daiteke, kosta egiten baita bertara iristea (begetazio handia, sasitza, toki bertikalak eta maldatsuak…) eta itsatsitako hondakinak libratzea.	En las zonas donde el río no está encauzado y existe vegetación, se acumulan principalmente residuos plásticos y textiles que son arrastrados por el río y se enredan entre las ramas y la vegetación. Estos residuos pueden tener su origen aguas arriba del lugar de donde se encuentran y se quedan entre las ramas por largos periodos de tiempo. La limpieza de estos tramos puede ser costosa por su difícil acceso (gran cantidad de vegetación (zarzal), zonas muy verticales y en pendiente…) y la dificultad de desenredar los residuos.
Ibaian gora, non ibaia hormigoizko hormekin edo harri-lubetekin bideratuta dagoen, batez ere Eibarko hirigunetik igarotzean, ez dago zabor-arazo handirik, hondakinak ez baitira hain atxikita geratzen eremu horietan, eta ibaian behera zirkulatzen jarraitzen dute. Hala ere, garrantzitsua da tarte batzuk ere	Aguas arriba, los tramos donde el río está encauzado con muros de hormigón o escolleras, especialmente a su paso por el centro urbano de Eibar, no presentan gran problema de acumulación de basura dispersa, ya que los residuos no se quedan tan retenidos en estas zonas, sino que siguen

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

berrikustea eta garbitzea, ibaian behera pilatuta geratzen diren hondakinetako batzuk eremu horietatik baitatoz, eta ibilguen hormen goiko aldeetan hondakinak pilatzen dira, eta zaila da horiek biltzea. Bestalde, ibaiaren zati irekietan hondakin astunagoak (gurpilak, txatarrak, zurak, plastiko zurrunak), plastikoak, ontzi arinak eta abar dituzten puntu batzuk aurkitu dira.

circulando aguas abajo. Sin embargo, es importante revisar y limpiar también ciertos tramos encauzados, puesto que parte de los residuos que se quedan acumulados aguas abajo provienen de estas zonas, donde se acumulan residuos en las partes altas de los muros del cauce, y son difíciles de recoger. Por otro lado, se han detectado ciertos puntos en los tramos descubiertos del rio que presentan algunos residuos más pesados (ruedas, chatarras, maderas, plásticos rígidos), además de plásticos y envases ligeros, etc.

Azkenik, Ego ibaira isurtzen diren Iburerreka, Txonta, Aiagaerreka, Gorostaerreka eta Aasuaerrekako erreken behe-ibilguetan hondakinak pilatzen diren guneak aurkitu dira; hondakin horiek nahita pilatu dira egindako isurketen bidez edo ibai-ertzean pilatuta amaitu dute.

Finalmente, en los cursos bajos de las regatas de Iburerreka, Txonta, Aiagaerreka, Gorostaerreka y Asuaerreka, que desembocan en el río Ego, se han detectado zonas donde se acumulan residuos, bien por tratarse de residuos que deliberadamente han terminado en el medio fluvial, o bien por tratarse de zonas de remanso donde la basura se queda retenida.

4.- LANEN ZEHAZTAPENA

4.1.- Zaborrak biltzeko eragiketen plangintza eta erregistroa.

Adjudikatzaileak, zaborrak biltzeko lanak hasi baino lehen, egin beharreko lanen planifikazioari buruzko proposamena igorriko dio Lanaren Zuzendaritza Teknikoari.

Era berean, lanak hasi aurretik, URAren (Uraren Euskal Agentzia) ikuskaritza-zerbitzuari jakinarazi beharko zaio zaborrak biltzeko lanak non, zer egunetan eta zer ordutan egingo diren.

Egindako eragiketak erregistratzeko, zerbitzua amaitu eta astebeteko epean, adjudikaziodunak jarduketen erregistro bat eta memoria tekniko bat bidaliko ditu, Udal honek emandako ereduen arabera.

4.2.- Zaborra biltzeko lanak.

Agiri honetan aurreikusitako garbiketa-lanen helburua I. eranskinean adierazitako ibai-tarteetan dauden zaborrak kentzeko beharrezkoak diren lan guztiak egitea izango da.

4.- ESPECIFICACIÓN DE LOS TRABAJOS

4.1.- Planificación y registro de las operaciones de recogida de basuras.

El adjudicador, con antelación al inicio de las operaciones de recogida de basuras, remitirá a la Dirección Técnica del Trabajo una propuesta sobre la planificación de las operaciones a realizar.

Así mismo, previamente al inicio de las operaciones se deberá avisar al servicio de inspecciones de URA (Agencia Vasca del Agua) sobre la localización, día y hora en que se desarrollarán las operaciones para la recogida de las basuras.

Para el registro de las operaciones realizadas, una vez finalizado el servicio y en el plazo de una semana, el adjudicatario remitirá cumplimentado un registro de actuaciones y una memoria técnica conforme a los modelos proporcionados por este Ayto.

4.2.- Operaciones de recogida de basuras.

Los trabajos de limpieza contemplados en este pliego tendrán por objeto realizar todas las operaciones necesarias para retirar las basuras presentes en los tramos señalados en el anexo I.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Zaborra da material solido antropogenikoa, manufakturatua edo prozesatua (iturria eta tamaina edozein dela ere), nahita edo nahi gabe ibai-inguruneanamaitu duena, adibidez, plastikoak, ehunak, pneumatikoak, metalak, egurrak, paper-zapiak, etab., eta aipatutako ibai-zatietako adarretan eta landaretzan pilatuta ager daitezkeen beste hondakin batzuk. Ez da hondakin naturalik jasoko.

Se entiende por basura cualquier material sólido antropogénico, manufacturado o procesado (independientemente de su fuente y tamaño) que deliberadamente o accidentalmente ha terminado en el medio fluvial, como por ejemplo: plásticos, textiles, neumáticos, metales, maderas, toallitas, etc., y otros residuos que puedan aparecer enredados en las ramas y en la vegetación de los tramos señalados. No serán objeto de recogida desechos naturales.

Zaborrak eskuz bilduko dira, kontu handiz, landarediari, faunari eta inguruneari kalterik ez eragiteko.

La recogida de las basuras se realizará de forma manual con especial cuidado para no afectar a la vegetación, a la fauna ni al entorno.

Urarekin kontaktuan jartzen diren elementu guztiei zebra-muskuiluaren dispertsioari aurre egiteko ekipoak desinfektatzeko protokoloa aplikatuko zaie (hemen eskuragarri: www.uragentzia.euskadi.eus).

A todo elemento que entre en contacto con el agua se le aplicará el protocolo de desinfección de equipos frente a la dispersión del mejillón cebra (disponible en www.uragentzia.euskadi.eus).

Ur-ibilguaren sarbideak eta zaborrak ateratzeko guneak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

La identificación de los puntos de acceso al cauce, así como los puntos para la extracción de las basuras correrá a cargo del adjudicatario.

Hondakin batzuk Ego ibaiaren bideratze-hormen goialdean daude; beraz, bilketa batzuetan lan bertikalen teknikak erabili beharko dira.

Parte de los residuos se localizan en las zonas elevadas de los muros de encauzamiento del río Ego, por lo que algunas de las operaciones de recogida requerirán el uso de técnicas de trabajos verticales.

4.3.- Bildutako zaborren garraioa eta azken kudeaketa.

4.3.- Transporte y gestión final de las basuras recogidas.

Hondakinak, egindako bereizketa eta sailkapenaren arabera, tratamendu-instalazioetara, transferentzia-guneetara edo baimendutako gune kudeatzaileetara garraiatzea adjudikaziodunaren kontura izango da, baita zaborren azken kudeaketari lotutako kostuak ere.

El transporte de los residuos, en función de la separación y clasificación realizada, hasta las plantas de tratamiento, estaciones de transferencia o gestores autorizados correrá a cargo del adjudicatario, así como los costes asociados a la gestión final de las basuras.

4.4.- Baimenak eta lizentziak lortzea.

4.4.- Obtención de las autorizaciones, licencias y permisos.

Adjudikaziodunari dagokio lana gauzatzeko behar diren baimen eta lizentzia ofizial zein partikularrak lortzea, hala nola bide publikoa eta bide-azpiegiturak okupatzea, hiri-hondakin solidoen kudeaketarekin lotutako azpiegituretarako sarbideak egitea, etab. Hori

Corresponde al adjudicatario la obtención de las autorizaciones, licencias y permisos, tanto oficiales como particulares, que se requieran para la ejecución del trabajo, como por ejemplo la ocupación de vía pública e infraestructura viaria, accesos a las

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

guztia, itsasoko eta lurreko jabari publikoa okupatzeko administrazio-baimena izan ezik.

infraestructuras ligadas a la gestión de residuos sólidos urbanos etc., todo ello con la excepción de la autorización administrativa de ocupación del Dominio Público Marítimo – Terrestre.

5.- KONTRATUAREN ZUZENDARITZA TEKNIKOA

Lanaren zuzendaritza teknikoa Eibarko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Saileko Ingurumen Zerbitzuak hartuko du bere gain.

Honako hauek dira zuzendaritza teknikoaren eginkizunak:

1. Zerbitzua emateko behar diren baliabideak eta antolamendua egon daitezela eskatzea.

2. Baldintza teknikoen agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako gainerako baldintzak interpretatzea.

3. Ingurumen Zerbitzuak lanaren xede den gaiari buruz zehazten dituen irizpideak sartzeko eskatzea.

4. Komeni diren aldaketak programatzea. Horretarako, Zuzendaritzak berariazko ahalmena izango du egiten ari den edo egiteke dagoen lan-programa aldatzeko, kasu bakoitzeko egoera berezien eta lortutako emaitzen arabera, betiere jardun beharreko bideen luzera osoa eta amaierako aurrekontua aldatzen ez badira.

5.- DIRECCIÓN TÉCNICA DEL CONTRATO

La Dirección Técnica del trabajo será asumida por el Servicio de Medio Ambiente del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente del Ayuntamiento de Eibar.

Son funciones de la dirección técnica:

1. Exigir la existencia de los medios y organización necesarios para la prestación del servicio.

2. Interpretar el Pliego de Condiciones Técnicas y demás condiciones establecidas en el contrato o en disposiciones oficiales.

3. Exigir la incorporación de los criterios que el Servicio de Medio Ambiente pueda ir definiendo sobre la materia objeto del trabajo.

4. Programar las modificaciones que convenga introducir en el servicio, para lo cual la Dirección está expresamente facultada para variar el programa de trabajo, en realización o por realizar, de acuerdo con las circunstancias especiales de cada caso y los resultados que se vayan obteniendo, siempre que no varíe la longitud total de los cauces sobre los que se debe actuar ni el presupuesto final.

6.- ADMINISTRAZIOAREKIKO LAGUNTZA

Adjudikaziodunak lanaren helburua behar bezala betetzeko komenigarritzat jotzen diren zerbitzu profesional guztiak emango dizkio Administrazioari (adibidez, bileretara joatea informazioa emateko erakundeetako ordezkariei, komunikabideei eta, oro har, jendeari), eta Zuzendaritza Teknikoak beharrezkotzat jotzen dituen jarraipen-bilera guztietara joango da, hark egoki irizten dion lekuan.

6.- ASISTENCIA A LA ADMINISTRACIÓN

La adjudicataria facilitará a la Administración, sin ningún coste adicional, cuantos servicios profesionales se estimen convenientes para el correcto desarrollo y cumplimiento del objetivo del trabajo, tales como asistencia a reuniones explicativas de información a los representantes institucionales, medios de comunicación y al público en general, personándose en cuantas reuniones de seguimiento sean consideradas necesarias por la Dirección Técnica y en lugar que este estime.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

7.- KONTRATUA AMAITUTAKOAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Adjudikaziodunak, behin zerbitzua amaituta eta astebeteko epean, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Jardueren erregistroa (excel dokumentua), zati bakoitzean bildutako hondakinen karakterizazioa eta pisaketa jasotzen dituena.
- Memoria tekniko deskribatzailea, ibaiaren eta errekaren zati bakoitzaren argazki-erreportajea barne, garbiketa-lanen aurreko eta ondorengo egoera zehatz-mehatz adieraziz. Alderagarritasuna bermatzeko, zati bakoitzeko gutxienez “aurreko” egoeraren 3 irudi eta “ondorengo” egoeraren 3 irudi aurkeztuko dira, hiru kaptura-puntu desberdinetatik hartuta. Argazki-bikote bakoitza (aurretik eta ondoren) puntu beretik egin beharko da beti, eta bereizmen handia izan behar du.
- Argazki-artxibo digitalak eta independenteak, ibai-zatika behar bezala antolatuak eta “aurretik” eta “ondoren” sailkatuak, hautatutako hiru kaptura-punturen korrespondentzia mantenduz.

Jarduketen erregistroak eta memoria teknikoak Udalak emandako ereduari jarraitu beharko diote.

8.- LANEN KONFIDENTZIALTASUNA ETA JABETZA

Adjudikaziodunak plegu honen arabera egiten dituen agiri guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren jabetzakoak izango dira, eta zuzendaritza horrek osorik edo zati batean kopiatu edo zabaldu ahal izango ditu, egoki irizten dion moduan. Adjudikaziodunak ezin izango du horren aurka egin, egile-eskubideak edo beste edozein eskubide argudiatuta.

9.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Errotulazioa eta oharrak: Errotuluak, oharrak eta seinaleak honela egingo dira, Udalarekin aldez aurretik adostuta:

7.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR A LA FINALIZACIÓN DEL CONTRATO

El adjudicatario una vez finalizado el servicio y en el plazo de una semana deberá de presentar los siguientes documentos:

- Registro de las actuaciones (documento excel) con la caracterización y pesaje de los residuos recogidos en cada tramo.
- Memoria técnica descriptiva que incluirá un reportaje fotográfico de cada tramo de río y regata, reflejando fielmente el estado anterior y posterior a las labores de limpieza. Para garantizar la comparabilidad, se aportará un mínimo de 3 imágenes del “antes” y 3 del “después” por cada tramo, tomadas de tres puntos de captura diferentes. Cada pareja de fotografías (antes y después) deberá realizarse rigurosamente desde el mismo punto y contar con alta resolución.
- Archivos fotográficos digitales e independientes, debidamente organizados por tramos y clasificados en “antes” y “después”, manteniendo la correspondencia de los tres puntos de vista seleccionados.

Tanto el registro de las actuaciones como la memoria técnica, deberán ajustarse al modelo facilitado por este Ayuntamiento.

8.- CONFIDENCIALIDAD Y PROPIEDAD DE LOS TRABAJOS

Toda aquella documentación que pudiese ser elaborada por el adjudicatario en base al presente pliego, será propiedad de la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, quien podrá reproducirlos o divulgarlos, total o parcialmente, en la forma que estime conveniente, sin que pueda oponerse a ello el adjudicatario alegando derechos de autor o cualesquiera otros.

9.- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

Rotulación y avisos: los rótulos, avisos y señales se realizarán de la siguiente manera, previo acuerdo con el Ayuntamiento:

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Euskaraz, mezuak ulergarriak direnean.
- Piktograma bidez, eta ondoan euskarazko azalpena jarrita.
- Euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanez.

- En euskera, cuando los mensajes sean comprensibles.
- Mediante pictograma acompañado de una explicación en euskera.
- En euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

Erabilera Eibarko Udalarekin:

Fakturak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko dira.

Udalarekin partekatuko den dokumentazioa (jardueren erregistroa eta azken txostena) euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko da.

Harremana euskaraz: Udaleko sail kontratatzailearen eta kontratatutako enpresaren arteko harremanak (telefonoz, aurrez aurre eta e-mailez) ahal dela, euskaraz izango dira.

Uso con el Ayuntamiento de Eibar:

Las facturas deberán presentarse en euskera o en euskera y castellano.

La documentación que se compartirá con el Ayuntamiento (registro de actuaciones e informe final) deberá presentarse en euskera y castellano.

Contacto en euskera: las relaciones telefónicas, presenciales y por e-mail entre el departamento contratante del Ayuntamiento y la empresa contratada serán preferentemente en euskera.

10.- GENERO-BERDINTASUNERAKO IRIZPIDEAK

Dokumentazio, publizitate, irudi, material, errotulu, abisu, seinale eta gainerako komunikazio orokor guztiek hizkera ez-sexista erabili beharko dute, emakumeen aurkako bereizkeria edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestu beharko dute, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen aldeko irudia sustatu beharko dute.

Bileretan, elkarrizketan… hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin beharko da, emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak saihestu beharko dira, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudia sustatu beharko da.

250 langile baino gehiago dituzten enpresek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan bat izan eta aplikatu beharko dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitakoa. Udalak, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratua betetzen dela egiaztatzeko eskatu ahal izango du.

10.- CRITERIOS DE IGUALDAD DE GÉNERO

Toda la documentación, publicidad, imagen, materiales, rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general deberán hacer un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de Género.

En reuniones, entrevistas… se deberá hacer un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de Género.

Las empresas con plantilla superior a 250 personas, deberán tener y aplicar realmente un Plan para la igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, del 22 de marzo, para la igualdad Efectiva de Hombres y Mujeres. El Ayuntamiento podrá exigir durante la vigencia del contrato la acreditación de su cumplimiento.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

11.- INGURUMEN IRIZPIDEAK

Enpresa adjudikaziodunak zainduko du egindako landa-lanek ez dezatela kalte eragin ingurumenaren gainean, bereziki ibaien ohantzearen babesean, ibilguko, ertzetako eta erriberako espezieen eta habitaten biodibertsitatean, uren eta lurzoruaren kutsaduran, langileak eta ekipoak erabiliz eta jarduketen ondoren hondakinak kudeatuz eta garraiatuz.

11.- CRITERIOS AMBIENTALES

La empresa adjudicataria velará por que los trabajos de campo realizados minimicen los impactos sobre el medio ambiente, especialmente en la protección del lecho de los ríos, la biodiversidad de especies y hábitats en el cauce, márgenes y ribera, la contaminación de las aguas y del suelo mediante la utilización de personal y equipos y la gestión y transporte de residuos tras las actuaciones.

12.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko indarreko araudian jasotako laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan eskatutako betekizunak eta betebeharrak, bereziki, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan jasotakoak, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez. Kontratistak kontratuaren izaerari dagokion dokumentazioa eduki beharko du. Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori.

12.- SEGURIDAD Y SALUD

El/la contratista está obligado/a al cumplimiento de los requisitos y obligaciones exigidos en materia de Seguridad y Salud Laboral contenidos en la normativa vigente de Prevención de Riesgos Laborales, y en especial en el REAL DECRETO 171/2004, de 30 de enero, por el que se desarrolla el artículo 24 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, en materia de coordinación de actividades empresariales. El/la contratista deberá estar en posesión de la documentación que corresponda a la naturaleza del contrato. El Ayuntamiento podrá en cualquier momento requerir dicha documentación.

Eibarren, 2026ko ekainaren 3an.

Ingurumeneko Teknikaria

VANESA LARRABIDE

En Eibar, a 3 de junio de 2026.

La Técnica de Medio Ambiente

VANESA LARRABIDE

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

I. ERANSKINA / ANEXO


	Luzera / Longitud (m)	Koordenadak / Coordenadas UTM (X) -ibaian behera / aguas abajo-	Koordenadak / Coordenadas UTM (Y) -aibaian behera / aguas abajo-	Koordenadak / Coordenadas UTM (X) -ibaian gora / aguas arriba-	Koordenadak / Coordenadas UTM (Y) -ibaian gora / aguas arriba-
TARTEA / TRAMO 1. Ego ibaia (Otaola – Torrekua)					
TARTEA / TRAMO 1.1. Uni - Lidl	45	X: 541434.527	Y: 4780893.589	X: 541415.053	Y: 4780851.765
TARTEA / TRAMO 1.2. Mercadona - Hospital	470	X: 542084.303	Y: 4781255.972	X: 541698.733	Y: 4781000.552
TARTEA / TRAMO 2. Ego ibaia (Ego-Gain)	255	X: 542572.629	Y: 4781379.177	X: 542335.769	Y: 4781471.094
TARTEA / TRAMO 3. Ego ibaia (Barrena – Murrategi – Azitain)	475	X: 544674.180	Y: 4782090.156	X: 544344.787	Y: 4782082.789
TARTEA / TRAMO 4. Ego ibaia (Apalategi – Maltzaga)	1360	X: 545748.686	Y: 4782514.704	X: 544674.407	Y: 4782088.855
TARTEA / TRAMO 5. Iburerreka (Otaola hiribidea)	30	X: 541443.353	Y: 4780829.827	X: 541453.335	Y: 4780801.650
TARTEA / TRAMO 6. Txonta erreka (Txonta kalea)	245	X: 543763.397	Y: 4781224.364	X: 543776.590	Y: 4780986.442
TARTEA / TRAMO 7. Aiagaerreka (Murrategi kalea)	150	X: 544588.113	Y: 4781964.746	X: 544611.270	Y: 4781823.728
TARTEA / TRAMO 8. Gorostaerreka (Azitain industrialdea)	320	X: 544460.348	Y: 4782274.914	X: 544370.812	Y: 4782569.244
TARTEA / TRAMO 9. Asuaerreka (Asuaerreka kalea)	65	X: 543634.435	Y: 4781972.136	X: 543642.643	Y: 4782034.628
Guztira / Total	**3.415 m**				

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico

II. ERANSKINA / ANEXO



Uren legeriaren arabera, ibai-espazioaren zonifikazioa hauxe da:

- Ur laster jarraitu edo eten baten **ibilgu naturala edo albeoa** zera da: ohiko uhaldirik handienetan urez estalitako lursaila
- **Ibaiertza**: ibilgu naturalaren alboko zerrendetako bakoitza, beheko uren mailaren gainetik.
- **Bazterra** edo marjina: ibilguarekin muga egiten duen lursaila da, ibilguaren gainean dagoena.
- **Polizia-eremua:** albo bakoitzean ehun metro zabaleko alboko zerrenda bat da, ibilgua mugatzen duen lerrotik aurrera zenbatzen

De acuerdo con la legislación de aguas, la zonificación del espacio fluvial es la siguiente:

- **Álveo o cauce natural** de una corriente continua o discontinua es el terreno cubierto por las aguas en las máximas crecidas ordinarias.
- **Ribera** es cada una de las fajas laterales situadas dentro del cauce natural, por encima del nivel de aguas bajas.
- **Margen** es el terreno que limita con el cauce y situado por encima del mismo.
- **Zona de policía** es la constituida por una franja lateral de cien metros de anchura a cada lado, contados a partir de la línea que

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico

hasita; zerrenda horretan, lurzoruaren erabilera eta bertan egiten diren jarduerak baldintzatzen dira. Haren tamaina handitu daiteke lehentasunezko fluxu-eremua jaso arte. Lehentasunezko fluxu-eremu hori da, hain zuzen ere, jarioa batez ere uraldietan kontzentratzen den eremuaren eta, 100 urteko errepikatze-denborako uraldirako, pertsonen eta ondasunen gainean kalte larriak gerta daitezkeen eremuaren arteko loturak osatzen duen eremua. Eremu horren kanpoko muga bi eremuen inguratzailearen bidez mugatzen da.

- **Zortasun-eremua:** ibilguarekin muga egiten duen zerrenda da, polizia-eremuaren barruan; bost metroko zabalera du eta ibai-ekosistema babesteko erabiltzen da; bai eta oinezkoen pasabide publikorako, zaintza-, kontserbazio- eta salbamendu-zerbitzuetarako ere.

delimita el cauce, en las que se condiciona el uso del suelo y las actividades que en él se desarrollen. Su tamaño se puede ampliar hasta recoger la zona de flujo preferente, la cual es la zona constituida por la unión de la zona donde se concentra preferentemente el flujo durante las avenidas y de la zona donde, para la avenida de 100 años de periodo de retorno, se puedan producir graves daños sobre las personas y los bienes, quedando delimitado su límite exterior mediante la envolvente de ambas zonas.

- **Zona de servidumbre** es la franja situada lindante con el cauce, dentro de la zona de policía, con ancho de cinco metros, que se reserva para fines de protección del ecosistema fluvial; paso público peatonal, servicios de vigilancia, conservación y salvamento.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **2868e8b0c2727390e9938395c592c9fe6f5d975b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600002973**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
VANESA LARRABIDE GARCIA	**03/06/2026 12:20:19**